

Joxerra Aizpurua

INGENIARI INDUSTRIALA

## Clusterra, bi urte eta gero

**B**i urte eta erdi igaro dira Euskal Herriko Hizkuntzaren Industria cluster bihurtzeko prozesua mar-txan jarri zenetik. Lehenagotik ere egin izan dira saiakerak. 2000. urtearen inguruan izan zen aurrekoa. Azken hau, Gipuzkoako Foru Aldundian argi berdea piztea lortu zuena, Elhuyar Fundazioko kideen ekimenez ipini zen abian.

Gipuzkoan kokatutako enpresei egin zitzairen deia hasieran, horiekin eman zitzaion hasiera clusterizazio prozesuari, azkar batean Euskal Herri osora zabaltzeko ahalegina egingo zelakoan. Krisiak atea jo zuen orduan, baina guztion harridurarako, oso parte-hartze aktiboa izan ziren lehen plan estrategikoa zehaztu zutenak.

2009ko maiatzean orriotan argitara emandako artikuluan, Langune osatzen dugunon ilusioak kutsatuta, baikortasuna plazaratu nuen. Orduz geroztik geure artean bilera ugari egin ditugu hainbat aholkulariren laguntzaz, irteera ikusten ez diodan tunel ilun batean gaudela iruditzen zait. Azkeneko hilabeteetan Languneko en arteko bileretako lehen mailatik urrundu egin banaiz ere, ahalik eta hurbilenetik segitu nahi izan dut prozesua, agian nire bizitza profesionalean gauzatu ez dudan amets bakarrenetakoa baita Languneren bidez lortu nahi dena.

Egia da Langune egituratze fasean dela, baina kezka sortzen didaten hainbat gauza



DANI BIANCO

ikusten dizkiot. Adibidez, egituraketa-prozesua luzeegia egiten ari zaigula batzuo, edo betidanik kide diren enpresen artean izan diren mesfidantzek hor dirautela. Adibidez, administrazioen aurrean dugun 'kategoria industrialak' minimoetan segitzen duela.

Baten batek esan dezake krisiak ez digula lagundu eta administrazioak beste premiazko lehentasunak dituela. Uste horiekin bat baldin banator ere, gure baitan ere begiratu beharko genukeela uste dut.

Esaterako, azken bi urteotan Languneren inguruan aritu garenongan areagotu al da elkarlana proiektuetan? Ezezkoan nago. Gure artean historikoki izan dugun lehia baztertzailak bere horretan jarraitzen duela iruditzen zait.

Administrazioak, bestalde, Languneren helburu den ikerketa zentroaren bideragarritasun-azterketa bertako kide bati esleitu dionean –eta ez Languneri berari –, ez al ditu bestela ere soberan genituen mesfidantzak areagotu? Ezin al zen hori beste modu batera egin?

Gainera, geure arteko bilera luzeetan proiektu estrategikoko posibleak definitzean ez al dugu talka egin euskararen merkatu mugatuarekin, eta ez al dugu sentitu –nahiz eta inork deus ere esan ez– euskarak interes praktikoa eskasa duela industrian?

Esan bezala, ni behinik behin, tunel ilunean nago bete-betean, baina sinetsiez adazue, irteera ikusi nahi diot albait lehen. ■



Tunel ilunean

nago

bete-betean,

baina sinets

iezadazue,

irteera

ikusi nahi diot

albait lehen



TXANDAN

Edu Zelajeta



Ez dakit zehazki noiz, baina duela urte sailtxo bat etxekoa zen guztia modan jarri zen. Ostatu nahiz jatetxetan, esaterako, etxeko postreak “berreskuratu” ziren. Bai eta postrearen ondokoak ere: (oso) gutxi ohi dira etxean egindako patxarana hautatzen ez dutenak, horretarako parada egonda. Ziu-rrerik, horrela jokatzeko duen bazkaltiarrek mahaiki-deen presioa aise nabaritu du, etxeko patxarani muzin eginez gero.

Ez dakit zehazki noiz, baina duela urte sailtxo bat formazio autodidaktak indarra hartu zuen, bide

### Etxekoa, faborez

estandarrago edota akademikoagoaren zenbait gabezia salatuz. Horrek norik bere bidea jorratu beharra ekarri zuen, norik bere bilaketak abiaraztea. Hala ere, oker interpretatuta edo, badira autodidaktaren titulua harroxo erakusten dutenak, etxeko formazioaren apologia sutsua egiten dutenak.

Neure burua autodidakta samartzat dudan eta patxarana maite dudan honetan, kontutxo bat nahiko nuke ekarri mahai honetara: etxean egindako patxarana etxe bakoitzeko legearen arabera egiten da, denak diferenteak izanik. Onak, txarrak eta erdipurdikoak. Autodidakten pareko. ■